

Proposamen bat

Joxean Agirre

Bere oroitzapen liburuan Pio Barojak dio euskaldunok motzak garela balentriaren bat egin eta hura esaldi batekin borobiltzen. Wellingtonek Waterloon, Dantonek Parisko Asanbladan eta Nelsonek Trafalgarko batailaren ondoren esandakoak aipatzen ditu eta Elkanoz oroitzen da, munduari itzulua eman eta lehorreratzean ez baitzuen ezer txukunik esan edo Lope de Agirrez, Hego Amerika erdia konkistatu eta Espainiako erregearen kontra altxatu zelarik ere, ez baitzuen gogoratzeko moduko esaldirik utzi. Barojak dio euskaldunak «arraza mutubat» izan garela.

«Lehen izango ginen», nioen nirekiko azken bi aste hauetan hautagaien jardunari erreparatuta. «Ez naiz ezkerrekoa, ez naiz eskuinekoa, ez naiz feminista, gizaki bat naiz» famatuarekin hasi nintzen zerrenda egiten eta koaderno laurdena beten.

Esaldiak bakarrik ez, proposamen lan-
duak aletzen hasi ziren EH Bildukoak: lan-
gabezia, bazterkeria soziala edo gatazkaren
ondorioak desagerrarazi edo erabakitzeko
eskubidea bideratzeko zorian ginela ema-
ten zuen. Euskal kultura salbatu behar de-
nik ez zuen inork aipatzen, baina Adminis-
trazioan 40.000 lanpostu berri sortu nahi
zituztela esan zutenean garaia zela pentsa-
tu nuen nik nire proposamena kaleratzeko.
Berandu nabil, epez kanpo, baina hurrengo
kanpainarako balioko duelakoan, nik Ad-
ministratioko kultur langileen soldata er-
dia eskatzen dut sortzaileentzat.

Agertuko dut argiago: hogeitau urteotan
izugarri ugaltu da kultura arloko profesio-
nal gremioa. Udaletxe txikienak dauka bere
kultura teknikaria, museorik txikienak ditu
pare bat langile ekitaldiak antolatzen, en-
presa andana sortu da jaialdiak eratzeko.
Horrek halako hipertrofia kultural bat eka-
rri du. Egunkarietako kultura agendak gai-

nezka daude. Ez da munduan egongo me-
tro koadroko hainbeste jaialdi, kontzertu,
erakusketa, emanaldi eta hitzaldi dituen
herrialderik. Baina, sorkuntzan ari diren
musikari, antzezle, bertsolari, animatzaile
eta artista plastikoek bazterreko kolektibo
bat osatzen dute, salbuespenak salbuespen.

Ez dakit bidea euren lan arloa arautzea
den edo ez. Ipar Euskal Herrian “Intermit-
tant” (Salarie Intermittant du Spectacle)
sistema dute eta antzekoak dituzte Belgi-
kan eta Luxenburgon. Beharbada, koopera-
tiba edo elkarteei diru laguntzak zuzenean
ematea izan liteke bidea edo mezenasei
kenkari fiskalak eskaintzea. Horiek arazo
teknikoak dira. Nire proposamena argia da:
kultur arloko sortzaile batek gutxienez kul-
tur arloko funtzionarioaren soldata erdia
irabazi beharko luke horrekin beren seme-
alaben gosea saihestu ahal izateko. Ez da as-
ko eskatzea. Badakizue: hurrengo kanpai-
narako. •

Politika baskoaren erotika

Xabier Mikel
Errekondo

A itortzen dut ez ditudala gehiegi
maite altuerak. Bi metro arteraino-
koak (jada jaisten...) eramaten ikasi
banuen ere, Port Aventura eror-
keta libreak edo Usurbilgo kanpandorretik
zein etxeko balkoitik behera begiratzeak
bertigoa sortzen dit. Marka da gero, baina
tokatu zait entrenatzaile profesionalik az-
ken urteetako lorpenekin gustura egon bai
baina eskubaloiak eskaintzen dituen maila-
rik gorenetera igotzeko aukera izan arren
nahi ez zuenik, bertigoak jota. Distantziak
distantzia, iruditzen zait azken hauteskun-
de kanpainan lehendakariari bat baino
gehiago bertigoak jota ibili dela, irabazteko
lehian aspergarri eta inspiraziorik gabe, Le-
gebiltzarrean egote hutsarekin konforma-

tuko balitz bezala. Nola liteke bestela lehen-
dakaritzarako hautagaien artean tristeena
eta zozoena nabarmenki bereiztea emozioz-
ko mezu gehien eta indartsuenekin...

Hauteskunde kanpainak urtikaria sor-
tzen didate eta ileak ziztagarri tentetu. Bai-
na, *dios!*, nola jarri nauen hauteskunde kan-
painak! Emaitzekiko morboak eta egunez
eguneko asperdura-tentsioen arteko kon-
trasteak, zalantza eta urduritasun ziprizti-
nek politikaren alde erotikoa esnarazi dida-
te. Gehiago, esango nuke hauteskunde
kanpaina aurrera joan ahala politika basko-
aren erotikak klimaxaren gorena duela jo,
nireez gain askoren ileak zut jartzearaino.
Horretan ibili dira pauma-paparrak eta
isats-lumak harro-harro eragiten hautagai

berritsuak eta haragi gantzetan bildutako
gerri bueltak. Argi dago bozak erakartzeko
paumaren erritual erotikoa Inigo izan du-
gula pauma-erreal. Ze itxura! Ze ahoskera!
Ze besoen mugimendu...! Enpresa eta en-
pleguaz esandakoek izango zuten oihartzu-
nik, baina mila bider errepikatutako emo-
ziozko hitzek dituzte bozen bihotzak
beregianatu: «Harro nago lehendakaria iza-
tetik; harro euskal gizarteaz, familiez, en-
presez, emakumeez eta gizonez; harro nago
Ertzaintzaz...». Azken horrekin irabaziak di-
tu kide eta senideen botoez gain maitale fi-
sikoak eta birtualenak ere. Izan ere,
amets lizunik zabalduena ez al da ba polizia
batekin desiratutakoa... Hauxe bai kanpai-
na arduradunen kolpe magistrala! •